

» TELEGRAMA


Donostiako Garoa Kultur Lab-en egitekoa zen, baina lokalaren itxierak derrigortuta Tabakalerako Kutxa Kulturaren egingo da: **Elliot Murphy**ren kontzertuaz ari gara. Apuntatu: martxoak 31, 20:00 #PaperezkoKontzertuak *STOP* Espainiako indie musikaren erreferenteak dira eta Bilbora datoz: **Love of Lesbian** Santana 27 aretoan ariko dira martxoaren 31n *STOP* Iruñeko Zentral aretoak bigarren urtez antolatu du **Brutenfest** jaialdia, non bost talde nafar entzuteko aukera izango den: Bastart Kowboys, Xoriñoak Kaloian, The Broken Horizon, El Portal de Jade eta VertiGo. Apirilaren 1ean da zita *STOP*

» DISKOA

Tematu eta tematu, ase arte



Iker Barandiaran
@IkerBarandiara



Azpisugeak KASKEZUR

Autoekoizpena, 2017

Topikoetatik tiraka ezin ukatu nafarrak burugorrrak direla, eta horien artean hala behar dute izan Kaskezur taldekoek. Aspaldi da zakur bat espaziora bidali zutela hark bizi hobea ezagutu eta bueltan beraiei kontatu ziezaien. Gero, 2011n, zakurra noiz bueltatu itxaron bitartean, trebatuz eta irudimenari hesiak zabalduz, *Gure jokua* kaleratu zuten: irekia erabat, estiloz estilo salto egin eta patroiei entzungor egiten ziena, lotura eza eta dibertimendua ereinez. Bi urte geroago, aldarte serioagoarekin bueltatu ziren gure orriotara eta ilgorak behar duen errespetuarekin izen bereko diskoa kaleratu zuten. Serioago eta irmoago, pop-rockari post-hardcorearen sendotasuna itsatsi zioten, ilunago batzuetan eta umore finarekin beste batzuetan.

Laukotea erabat barneratu da 90eko hamarkadan sona eta arrasto nabaria utzi zuen noise-pop edo indie delakoan, ez edonola gainera. Gerora, beste askok bezala, etiketa horiek sena galdu badute ere, gutako batzuen iruditerian zizelkatuta daude distortsio, melodia bihurri, intentsitate eta energiaz betetako kantu melodiko eta bizi haiek. Eta hala egin dute, barrenak askatuz, mugak bilatuz eta batez ere disfrutatuz. Hala transmititzen dute.

Itsasoan norabidea aldaraziko duen *Olatua*-k malenkonia, energia eta kiloko pop-rock oparia ditu bere baitan; giza-lege aldaketan salbu ez dagoen *Beti berdin* Ama Sayren ahaide da eta, jostari, gai da *in crescendo* distortsioan amiltzeko. *Azpisugeak* gurutzatua minimal-oso da: Fugaziren tankerako bihozkadak zelatan irudimen handiko pop-rocka du segida. *Sonik II*-k guztia eman nahi du bidegabekerien kontra: psikodelia, power-popa, noisea eta kaos kontrolatua. Ederra! *Lore sorta* arnasa moztan duen noise-pop bizi eta kiribilkaria da. *Dena argi ikusi nahi nuen* rockeroena, zuzena. *Uhin ertzak* irlarako bidaia-laguna da, ez zaio ezer falta: askatasunean hazi eta erabat basati bihurtutako power-pop perla energetikoa. *Arantzez josita gaudelako* berau hauskorra da, pop malenkoniatsua. *Eten zen denbora*-k pop-rock jostari eta alaietatik noisearen erraietara bidea egiten du. Eta, azkenik, akustikoan interpretatutako *Lumik gabeko oiloak* sarkorra da. ■

Kaskezur talde baztandarreko kideak.



Eta zenbait urte pasata bueltan dira baztandarrak mimoz eta lan handiz prestatutako *Azpisugeak* diskoa jendaurrean plaza-ratzera. Mimoz diot, emaitza eta kantuen ñabardurak azpimarratzekoak direlako. Berako Atala estudioetan grabatua izan da Iñigo Irazokirekin eta ekoizlea Ibai Gogortza (Borrokan) izan da. Zinez lan esker ga egin dute guztiek.